

emakumeen txokoa

2026 KO UDABERRIA

**Emakumeentzat eta LGTBIQ+ pertsonentzat Jabetze Eskolak
Gizonentzat Boteregabetze Eskolak
Zerbitzu eta Baliabide feministak**



ZER DA EMAKUMEEN TXOKOA?

Azpeitiko Emakumeen Txokoa hausnarketarako eta ikusgarritasuna sustatzeko topagunea da; emakumeen eta gizonen berdintasuna zein sexu eta genero aniztasuna helburu dituena. Mugimendu feministaren borrokaren emaitza da, eta babesleku segurua eta konfidentziala eskaintzeaz gain, askotariko jatorri eta kulturako emakumeak eta LGBTQ+ pertsonak ahalduentzeko ekipamendu publikoa da.

Emakumeei eta genero disidenteei beren trebetasunak eta laguntza-sareak indartzeko baliabide eta aukera ugari eskaintzen ditu, eta bizitza soziopolitikoan parte hartzea bilatzen du, ahotsak entzun eta baloratzen diren ingurune batean. Gainera, indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzuak eskaintzen ditu, erreparazioa bultzatzeko.

HARREMANETARAKO

Emakumeen Txokoa. Goiko kale, 12 behea.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 19:00etara
eta ostiraletan 9:00etatik 13:00etara.

Udako ordutegia (ekaina erdia eta uztaila):
astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

**emakumeen txokoa Parte hartuz,
denok irabazten dugu! Zatoz!**

JARRAI GAITZAZU



AzpeitikoEmakumeenTxokoa



@Etxokoa



@emakumetxokoa



Azpeitiko Emakumeen Txokoa

PARA LEER
EL TEXTO
EN OTROS
IDIOMAS,
MIRA AQUÍ





IKASTAROAK ETA TAILERRAK

JABETZE ESKOLAK

ZER DIRA JABETZE ESKOLAK?

Azpeitiko Jabetze eskolen helburua da emakumeei eta LGTBQ+ pertsonen beren buruaren eta beren bizitzaren jabe izateko tresnak eskaintzea. Maila pertsonalean eta kolektiboan indartzea bilatzen dute elkarrekin ikasiz eta errealitateari ikuspegi feministatik begiraturaz. Azken finean, herriko emakumeen eta genero disidenteen parte-hartze soziopolitikoak handitzen laguntzeko topagunea izan nahi dute.

Prestakuntza zabala eta parte-hartzailea eskaintzen da, herritarren proposamenetatik eta beharretatik zein parekidetasuna sustatzeko lan-ildoetatik abiatuta.

Zuri ere parte-hartzera animatzen zaitugu, elkarrekin jendarte parekideago eta bidezkoago baten bidea eraikitzeko!

IZEN EMATEA

Izena emateko epea: Urtarrilaren 19tik 30era
Non izena eman?

- Azpeitiko Emakumeen Txokoa, zuzenean:
Goiko Kale 12, behea
- Telefono bidez: 943 15 70 55
- Whatsapp-ez edo Telegram bidez: 688 751 000
- Posta elektronikoz: emakumetxokoa@azpeitia.eus

Izena emateko

Izen-emate orria bete behar da. Orria eskuratzeko Emakumeen Txokoa eskatu edo eskuorriko fitxa bete eta entregatu.

IZENA EMATEKO OHARRAK

- 1. Plazak mugatuak dira,** eta ikastaroetan zein tailerretan lehentasuna izango dute:
 - Azpeitian erroldatutakoek
 - Azpeitian erroldatuta egon eta ikastaro bera aldeztu aurretik egin ez dutenek (ikastaroaren jarraipena den kasuetan izan ezik)
 - Azpeitian erroldatuta daudenek eta Jabetze Eskolako eta Emakumeen Txokoko ikastaroetan aurrez parte hartu ez dutenek.
- 2. Taldeak antolatzeko,** behar izanez gero, **zozketa** egingo da izena eman duten pertsona guztien artean. Gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea osatzeko.
3. Behin taldea osatuta, ordainketa egin beharko da, eta dirua itzuliko da, soilik, justifikatutako ez-bertaratzea denean.
4. Haurtzaindegi-zerbitzua eskainiko da gutxienez 3 umeko taldea osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, aurrez, izena ematerakoan adierazi.

EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLAK

1. ZAHARTZARO BERRIAK, AUKERA BERRIAK

Emakumeon helduaroa garai aproposa izan daiteke geure buruaz hausnartzeko eta beste emakumeekin partekatzeko isilean egiten dugun galdera: zer tokatzen da orain?

Ikastaro honetan emakumeok zahartzaroaz mintzatzeko giro goxoa eta lasaia sortuko dugu: nola bizi dugu adina, zer eskatzen zaigu, zer nahiko genuke izan, zer ez?



Otsailak 5, 12 eta 26



Euskara



Ostegunak, 17:30-19:00



7,5€ Azpeitian erroldatutakoentzat
9,5€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat



Yolanda Arrieta

2. KAKORRATZ-LANA

Ikastaro honetan kakorratz-lana izango da gure aitzakia espazio ziurra, intimoa eta lasaia eraikiz, progresiboki, barrutik kanporako norabidean auto-zaintza, jabekuntza eta ahizpatasuna lantzeko. Alderdi indibiduala eta kolektiboa lantzeaz gain, historian zehar deuseztatu zaigun espazioa publikoaren konkista bilatuko dugu, saioz saio ehunketa aldarrikapenak egiteko baliabideak eskainiz.



Otsailaren 11tik maiatzaren 20ra



Euskara



Asteazkenak, 17:00-19:00



22€ Azpeitian erroldatutakoentzat
26,5€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat



Oihana Merino

3. TRATU ONEKO LOTURA AFEKTIBOAK ERAIKITZEN

Bizi garen jendarte patriarkalak harreman mota bat erreproduzitzen du; desberdintasunean, hierarkizazioan eta enfrontamenduan oinarritzen diren botere harremanak. Horren guztiaren atzean, ikasitako sinesmen, rol, jarrera, estilo emozional eta abarren amalgama bat dago, eta beharrezkoa da horiek argitzea aldaketak sortzeko.

Ikastaro honetan Tratu ona da landuko duguna, tratua norberari eta besteei, horrek dakarren guztiarekin. Maitasunari buruzko sinesmenak berrikusiz, berdintasunezko posizioan jartzea eragozten diguna azalduz eta espazio parekideak, tratua onekoak, pozgarriak eta elkarrekiko zaintzakoak sortzen lagunduko diguten gakoak ikasiz.



Otsailaren 24tik apirilaren 28ra



Gaztelera



Astearteak, 18:00-20:00



16,5€ Azpeitian erroldatutakoentzat
20€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat



Pepa Bojó

4. EMAKUMEAK EBOLUZIOAN

Ikastaro honetan eboluzioa ikuspegi integraletik aztertuko dugu, emakumea eboluzioaren protagonista gisa kokatuz eta emakumeek historian eta zientzian izan duten papera ardatz hartuta.

Horretarako, hiru saio egingo ditugu; lehenengoa, teorikoa (Antxieta arkeologia taldearen lokalean) eta, beste biak, praktikoak (Izarraitz-era irteera eta Ezkuzta-ko kobara bisita). Metodo arkeologikoen bidez gure inguruak gehiago ezagutuko ditugu, izan geologia aldetik, biologiatik, etnografiatik zein arkeologiatik.



1. saioa apirilak 24 (ostirala)
17:00-14:00

2. saioa apirilak 25 (larunbata)
9:00-14:00

3. saioa, maiatzak 9 (larunbata)
10:00-13:00
(eguraldia dela-eta, irteeren datak aldatu ahalko dira)



Antxieta Arkeologia taldeko partaideak



Euskara



16,5€ Azpeitian erroldatutakoentzat
20€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat

5. TUPPERSEX: EROTIKA IKUSPEGI SEXOLOGIKO ETA FEMINISTATIK LANTZEN

Eguneroko bizitzan aurkitu ditzakegun objektu eta erremintak ukitu, usaindu eta dastatuko ditugu, plazer propio eta elkarbanatua gorputzeko bost zentzumenen indar erotikoaz elikatzeko. Horretaz gain, desioak, sedukzioa eta fantasien munduan murgilduko gara, erotismoaren inguruko egungo ideiak, balioak eta jarreraren inguruan kolektiboki hausnartuz eta gure burua hobeto ezagutzeko estrategiak landuz.



Maiatzak 5 eta 12



Astearteak, 17:30-19:30



Ainhoa Aira



Euskara



7€ Azpeitian erroldatutakoentzat

9€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat

EMAKUMEENTZAKO ETA LGTBIQ+ PERTSONENTZAKO JABETZE ESKOLAK

1. ISILARAZITAKO HISTORIA IKERTUZ

1936ko gerra eta diktadura frankistako lehen ikerketak batik bat bataila eta gerrako liderren kontaketa oinarritu ziren. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu zenbait emakumek aipatutako garaian jasan zutena jaso zutela 70-80 hamarkadan idatzi zituzten biografietan. Ikastaro honetan, emakumeek eta disidentzia sexu-generikoek jasandako errepresioa argitara aterako dugu, Azpeitiko eta inguruko herrietako kasuak gurerak ekarri.



Martxoak 4, 11 eta 18



Euskara



Asteazkenak, 17:30-19:30



10€ Azpeitian errolatutakoentzat
12,5€ Azpeitian errolatu gabekoentzat



Ione Zuloaga Muxika
(Aranzadi Zientzia
Elkarteko historialaria)

2. ENTRENAMENDU INKLUSIBOA

Identitate eta gorputz ororentzat sorturiko entrenamendua, funtzionalitateari eta osasunari lehentasuna emanaz.

Erresistentzia eta indarra landuko dira, kardio eta pisu ariketen bidez. Taldean egingo da lan, giro seguru eta zainduan; errespetua, ahalduntzea eta gozamena sustatu, ariketa fisikoarekiko eta gorputzarekiko harremana hobetuz.



Otsailaren 6tik martxoaren 27ra



Elebitan



Ostiralak, 17:00-18:00



13,5€ Azpeitian errolatutakoentzat
16,5€ Azpeitian errolatu gabekoentzat



Kai Rezabal

3. DJ TAILERRA

Festak espazioak okupatzeko baliagarriak dira; komunitate migratzaile, arrazializatu eta kuirrentzako topaleku aukerak eskaini ditzaketelarik. Ikastaroan zehar ikuspegi hori lantzea izango da helburua, horretarako, musika genero zehatz batzuk landuz.

Dj saioen prestaketa, musika bilatzea, deskargatzea eta antolatzea; saio bat antolatzea eta nahasketak egiten ikastea; eta zuzenekoaren aurkezpena eta grabaketa izango dira landuko ditugunak.



Martxoaren 5etik
apirilaren 30era.



Euskara



Ostegunak, 18:00-20:00



16,5€ Azpeitian errolatutakoentzat
20€ Azpeitian errolatu gabekoentzat



Ostaizka Esteli Serra Pozo
(Dj Siwanaba)



JABETZE ESKOLETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Helbidea	
Herria	P.K.
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan?	O BAI	O EZ
---	-------	------

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Nola? O Whatsapp-ez O Korreo elektronikoz O Telegramez

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)

Eguna: 2026ko	ren	(e)an	Sinadura:
---------------	-----	-------	-----------

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:

- | | |
|--|---|
| ☐ 1. Zahartzaro berriak, aukera berriak | ☐ 5. Tuppersex: erotika ikuspegi sexologiko eta feministatik lantzen |
| ☐ 2. Kakorratz-lana | ☐ 6. Isilarazitako historia ikertuz |
| ☐ 3. Tratu oneko lotura afektiboak eraikitzen | ☐ 7. Entrenamendu inklusiboa |
| ☐ 4. Emakumeak eboluzioan | ☐ 8. Dj tailerra |

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Zein motatakoa?

Hurtzaindegi zerbitzurik behar duzu?	O BAI	O EZ
--------------------------------------	-------	------

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

Harremanetarako: emakumetxokoa@azpeitia.eus | Goiko kale, 12. | Tlf.: 943 15 70 55 | 688 751 000

BOTEREGABETZE ESKOLAK

ZER DIRA BOTEREGABETZE ESKOLAK?

Gizonentzako boteregabetze- eskolak genero-rol tradizionalei aurre egiteko guneak dira. Tailerrak eta eztabaidak eskaintzen dituzte, gizonak gizartean duten eginkizunari buruz hausnar dezaten eta genero-desberdintasunak zein indarkeria matxistak betikotzen dituzten portaerak desikas ditzaten. Gizon kontzienteagoak sortzea bilatzen dute, harreman parekideak eta indarkeriarik gabekoak sustatuz.

IZEN EMATEA

Izena emateko epea: Urtarrilaren 19tik 30era
Non izena eman?

- **Azpeitiko Emakumeen Txokoa, zuzenean:**
Goiko Kale 12, behea
- **Telefono bidez:** 943 15 70 55
- **Whatsapp-ez edo Telegram bidez:** 688 751 000
- **Posta elektronikoz:** emakumetxokoa@azpeitia.eus

Izena emateko

Izen-emate orria bete behar da. Orria eskuratzeko Emakumeen Txokoa eskatu edo eskuorriko fitxa bete eta entregatu.

IZENA EMATEKO OHARRAK

- 1. Plazak mugatuak dira,** eta ikastaroetan zein tailerretan lehentasuna izango dute:
 - Azpeitian erroldatutakoek
 - Azpeitian erroldatuta egon eta ikastaro bera aldeztu aurretik egin ez dutenek (ikastaroaren jarraipena den kasuetan izan ezik)
 - Azpeitian erroldatuta daudenek eta Jabetze Eskolako eta Emakumeen Txokoko ikastaroetan aurrez parte hartu ez dutenek.
- 2. Taldeak antolatzeke,** behar izanez gero, **zozketa** egingo da izena eman duten pertsona guztien artean. Gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea osatzeko.
3. Behin taldea osatuta, ordainketa egin beharko da, eta dirua itzuliko da, soilik, justifikatutako ez-bertaratzea denean.
4. Haurtzaindegi-zerbitzua eskainiko da gutxienezko 3 umeko taldea osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, aurrez, izena ematerakoan adierazi.

1. BOTEREAREN AZTERKETA ETA HAUSNARKETA EGITEKO GIZONEN ESPAZIOA

Egunerokotasuneko gatazkak eta korapiloak partekatu ahal izateko espazioa da honakoa; gai zehatzak landu baino, zalantzak argituko ditugu, askotariko eztabaidak proposatu eta kontsultak egin. Egunerokoan suertatzen diren ezinegonei erantzuteko espazioa izango da.



Otsailak 19 eta maiatzak 14



Euskara



18:00-20:00



Doan



Iñi Etxezarreta (Eihera
Kooperatibako kidea)

BOTEREGABETZE ESKOLETAN

IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Helbidea	
Herria	P.K.
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan? ☐ BAI ☐ EZ

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu? ☐ BAI ☐ EZ

Nola? ☐ Whatsapp-ez ☐ Korreo elektronikoz ☐ OTelegramez

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)

Eguna: 2026ko ren (e)an Sinadura:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:

☐ 1. Boterearen errebisio eta hausnarketarako gizonen espazioa

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? ☐ BAI ☐ EZ

Zein motatakoa?

Hautzaindegi zerbitzurik behar duzu? ☐ BAI ☐ EZ

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

Harremanetarako: emakumetxokoa@azpeitia.eus | Goiko kale, 12. | Tlf.: 943 15 70 55 | 688 751 000

EMAKUMEENTZAKO IKASTARO IRAUNKORRAK

1. IRAKURRI ETA AHALDUNDU

Ainhoa Aldazabal Gallastegui naiz. Euskal filologiako ikasketak egin nituen eta paradoxikoki irakurtzeari utzi nion. Skolastika ezagutu nuenean berreskuratu nuen irakurtzeko gogoia, plazera eta zaletasuna. Bi pasioaren uztarketak eman dit ofizioa: literaturak eta feminismoak.

Ikasturte honetan hiru saioetara liburuen idazleak etorriko dira. Bisita hauek aukera paregabea eskainiko dute egileekin solasean aritzeko eta haien lanetan sakontzeko, horrela gure esperientzia literarioa aberastuz eta irakurzaletasuna sustatuz.



Urtarrilak 22, otsailak 19,
martxoak 26, apirilak 23,
maiatzak 21 eta ekainak 18



Ainhoa Aldazabal Gallastegui



Euskara



Ostegunak, 17:30- 19:30



16,5€ Azpeitian erroldatutakoentzat
25€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat

*Izena emandakoan harreratik pasatu liburura jasotzera.

**Izena emateko aukera ikasturte osoan zehar dago.

2. EMPALABRAMIENTO

Este es un taller formativo de español y euskera, habilidades personales y funcionales para el empoderamiento de las mujeres. Aunque esté centrado en la alfabetización y nivel básico de esos idiomas, se adapta constantemente a las necesidades y niveles del grupo, trabajando de esta manera diversos temas. Además, se ofrecen herramientas para trabajar en colectivo y aprender las unas con las otras.



Los lunes , miércoles
y viernes



Nerea Del Campo



Castellano



10:00-12:00



Gratis

IKASTARO IRAUNKORRETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Helbidea	
Herria	P.K.
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan?	O BAI	O EZ
---	-------	------

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Nola?	O Whatsapp-ez	O Korreo elektronikoz	O Telegramenez
(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)			

Eguna: 2026ko	ren	(e)an	Sinadura:
---------------	-----	-------	-----------

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:
☐ 1. Irakurri eta ahaldundu
☐ 2. Empalabramiento

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Zein motatakoa?

Hautzaindegia zerbitzurik behar duzu?	O BAI	O EZ
---------------------------------------	-------	------

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabetzuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titullarrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

**PARTE-HARTZERA
SENTSIBILIZAZIORA
ETA INTEGRAZIORA
EKIMENAK**



ZER DIRA PARTE-HARTZE, SENTSIBILIZAZIO ETA INTEGRAZIORAKO EKIMENAK?

Parekidetasuna bultzatzeko askotariko ekintzak antolatzen ditugu; hitzaldiak, kultura-jarduerak, tailerrak, zinema-emanaldiak... Publiko zabalar, pertsona orori irekita dauden ekimenak dira (hala aipatzen ez bada, behintzat).

EKIMENAK



APIRILAK 20TIK 27RA

"BOLLOLOGIA" ERAKUSKETA

(Astindu Armaryuek LGBTQ+ asanbladarekin elkarlanean)

Euskal Herriko bolleron mugimenduaren genealogia bisual bat.

Lekua: Sanagustin kulturgunean

MARTXOAK 2, ASTELEHENA

DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA:

"ZAHATZARO FEMINISTARANTZ, BOGA-BOGA"

Dokumental honek Ondarroako emakume helduen ahotsak eta esperientziak erdigunean jartzen ditu, zahartzaroaren irudi aktibo eta kolektiboa proposatuz. Elkarriketen bidez, sexualitatea, zaintza, zahartzaro feminista, sare politikoak eta bizitzaz goatzeko moduak lantzen dira, ikuspegi parte-hartzaile eta belaunaldiarteko batetik. Lea-Artibaiko gazte feministekin elkarlanean sortutako lan honek adineko emakumeen jakintza eta ahaluntze kolektiboa bistaratzen du, zahartzaroa ere feminismotik bizigarria izan daitekeela aldarrikatuz.

Ordutegia: 18:00

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoan

Hizkuntza: Euskara





MAIATZAK 13, ASTEAZKENA

ZINEGOAK

LGTBI+ film laburren emanaldia

Ordutegia: 19:00

Lekua: Soreasu antzokia

Hizkuntza: Euskara



MAIATZAK 15, OSTIRALA

ZUZENeko PODKASTA: ERTZETAKO AHOTSAK OHOLTZARA

Ertzetan isilarazi diren LGTBIQ+ ahotsak mikrofonotik ikasgeletara eta plazara ekartzeko ekimena.

Hezkuntza, komunitatea eta festa uztartuko dira.

Ordutegia: 18:00

Lekua: Sanagustin kulturgunean

Hizkuntza: Euskara


MARTXOAK 23, ASTELEHENA

“SIN PERMISO. Estudios feministas sobre el conflicto armado vasco”
LIBURUAREN AURKEZPENA: euskal gatazkaren gaineko ikerketa feministak eta errelatoen auzia.

Ordutegia: 18:00


Lekua: zehazteke

Hizkuntza: Euskara



**ZERBITZU ETA
BALIABIDE
FEMINISTAK**





ZER DIRA ZERBITZU ETA BALIABIDE FEMINISTAK?

Genero berdintasuna bermatzeko eta parekidetasunaren balioekin bat egiten duten zerbitzu ugari ditugu inguruan. Azpeitiko parekidetasun arlotik bereziki, hainbat zerbitzu kudeatzen dira eta horien inguruko informazio eta sarbidea eskaintzen da Emakumeen Txokotik. Zerbitzuak, KONFIDENTZIALAK, PROFESIONALAK ETA DOAKOAK dira.

EMAKUMEEN TXOKOKO BALIABIDE OROKORRAK

HARRERA ETA INFORMAZIOA

Emakumeei zuzendutako zerbitzuei buruzko informazioa. Indarkeria matxista kasuetarako zerbitzuen informazioa. Protokolo eta jarraibideen aholkularitza. Herriko parekidetasunerako baliabideen informazioa. Izen emateak. Gela eskaerak. Hitzorduek...

Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 19:00etara eta ostiralak 9:00etatik 13:00etara

LIBURUTEGI FEMINISTA

Liburu kontsultak
Liburu maileguak
Ikus entzunezkoen maileguak

*Maileguak harreran egin daitezke

ERREMINTA MAILEGUA

Etxeko lan txikietarako
erreminta maileguak.

*Maileguak harreran egin daitezke



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Prozesu judizialen inguruko informazioa eta hauen inguruko aholkularitza feminista eskaintzen duen zerbitzua da. Emakumeek beraien prozesuetan autonomia eta ahalduntzea garatzeko tresnak eskaintzen dira. Askotariko gaiak jorratzen dira.



LARDAXKA: SEXU, GENERO ETA BIKOTE AHOLKULARITZA

Sexuaren, generoaren eta sexuen arteko harremanen inguruko ezinegonak, zalantzak eta zailtasunak argitzeko zerbitzua da. Herritar orori zuzenduta dago eta banaka, bikotean zein kolektiboan erantzungo da: aurrez aurre, telefonoz edo era telematikoan.



AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO FEMINISTA


LGTBIQ+ pertsonen eta emakumeen bideratutako aholkularitza psikologiko espezializatua da. Zerbitzua ikuspegi feministatik egiten da, ahalduntze indibidual zein kolektiboa xede izanik.

Alde batetik, LGTBIQ+ pertsonen beraien sexu-genero identitateagatik edo orientazioagatik bizi (izan) dituzten gatazkak eta horiek sortutako ondorezak lantzeko aukera eskaintzen da. Bestetik, emakume eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunek sortzen dituzten genero ondorezak lantzeko gunea ere bada.

*Emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen zuzendua.



- **Aholkularitza guztietarako, aurrez, hitzordua eskatu behar da Emakumeen Txokoan edo 688 751 000 telefonora deituta.**
- **Online bidezko kontsulta egiteko aukera.**



INDARKERIA MATXISTA KASUEI BIDELAGUNTZA

Egungo jendartean emakumeok emakume izateagatik eta LGTBQ+ pertsonak haien sexu identitateagatik edota orientazioagatik indarkeria matxista pairatzen dugula jakina da. Askotariko indarkeria mota jaso ditzakegu, besteak beste, genero-indarkeria, familia barruko indarkeria sexista, sexu-indarkeria edota jazarpen sexuala. Indarkeriak forma asko har ditzake eta era ezberdinetan eman ohi da bortizkeria hori: psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa, soziala...


Indarkeria mota eta forma horiei guztiei aurre egin badiozu noizbait, aurre egiten ari bazara edo egoera horretan dagoen norbait ezagutzen baduzu, babesleku emozional eta sozialerako espazioa dugu Emakumeen Txokoan. Maila indibidualetik harago, kolektiboan elkar zaintzeko espazioa, alegia.

Informazio gehiago beharko bazenu, jar zaitez gurekin harremanetan.



NOLA ESKANEATU QR KODEA?

¿CÓMO ESCANEAR
UN CÓDIGO QR?



Mugikorreko kamararekin eskaneatu

Escanear con
cámara de móvil

Link bat azalduko zaizu, egin klik bertan

Aparecerá un link,
haz clic en él

Informaziora iritsiko zara

Llegarás a la
información

